Pidginaren sintaxiari buruz informazio asko ez dagoenez, morfologian eta fonetikan saiatu dira adituak, Danimarkako Unibertsitateko irakaslea den Peter Bakker adibidez. Hona hemen Bakkerrek aztertutako zerrenda:

Adesquidex: adiskidea	Echpada: ezpata	Mouscoucha: bizkotxoa
Atouray : atorra	Escorken: mozkorra	Orignac: oreina
Bacailos: bakailaoa	Gara: guda	Pilotoua: pilotua
Basquoa: euskalduna	Kessona: gizona	Praesentis: plaentziarra
Canadaquoa: kanadarra	Makia: makila	Souriquois: zurikoa
Capitaina: kapitaina	Maria: balea	Tabaguia: tapakia
Cacona: sakona	Martra: lepahoria	
Chabaya: basatia	Mercateria: merkataria	

Hainbat esaera ere jaso dira: "Endia chave normandia": normandoek asko dakite; "endia", euskarazko *handiatik* datorrela ondorioztatu da; "chave" eta "mercateria", erromantzeko "saber"-etik eta merkataritza hitzetik; "aoti chabaya" esapideak "indiar basatia" esan nahi du; "Ania kir capitana", "anaia, zu zara kapitaina".

ITSASOAZ GOGOETA

Gure oroitzenak
itsas galeretako
oholak bezala
ez dira
itsas hondoan
ezabatzen,
ez dute inongo porturik
helburu,
gure oroitzenak
itsas galeretako
oholak bezala
ur gainean
limurtuz doaz,
jitoan,
uhinek eraginak,
desegin ezin eta
xederik gabe.

Lar urrun kalatxori hezurrez
osaturiko hondartzak.

Joseba Sarrionaindia

Document 2 : ITSASOAZ GOGOETA

(Gure oroitzapenak
itsas galeretako
oholak bezala
ez dira
itsas hondoa
ezabatzen,
ez dute inongo porturik
helburu,
gure oroitzapenak
itsas galeretako
oholak bezala
ur gainean
limurtuz doaz,
jitoan,
uhinek eraginak,
desegin ezin eta
xederik gabe.)

(Lar urrun kalatxori hezurrez
osaturiko hondartzak.)

Berkestan agertzen da
itsasoa

↓
Zer balio du
erregabekasun
erronakiko
kizi sartze
Pessoa
galdau / Paf
galdau / Paf
odggo

Joseba Sarrionaindia, *Kartzelako poemak*, 1992, SUSA.

Le Danyin
Ereberin Zibunukoo
Tennabro errexia.

Document 3 : Arrantza, globalizazioaren aroan

'Zeruko Ama' ontziko hamalau arrantzaleetatik bederatzi senegaldarrak dira. Gainerako bostak, Orioko familia bateko kideak. Guztiek Kantauri itsasoan geratzen den egurrezko baxurako azken ontzietako bateko marinel koadrila osatzen dute. Afrikatik bizimodu hobeago baten itxaropenean etorritako lagunen errealtatea ez ezik, Euskal Herriko arrantzaren erretratu fidagarria ere eskaintzen du ontzi honek.

Ibon gaztañazpi

Donostia

Moussa, Issa, Faly, Souli, Ibrahim, Hassane, Faly, Arfan eta Fode dira, Orioko *Zeruko Ama* itsasontzian lan egiten duten bederatzi arrantzale senegaldarrak. Beltzak; Pedro, Lino, Eusebio, Jagoba eta Asier Solaberrietarentzat. Hamalauk osatzen dute Euskal Herriko kostaldean geratzen den baxurako egurrezko azken ontzietako bateko eskifaia. Etxekoak eta beltzak, arrantzale koadrila horri Orion esaten dioten moduan.

Haien arteko ezberdintasunak oso nabarmenak badira ere -batzuk ontziaren jabeak, europarrak eta zuriak dira; besteak soldatapeko langileak, etorkinak eta beltzak-, lehenengo begi kolpean igar daitezkeen baino antzekotasun gehiago dauzkate. Arrantzaren etorkizuna batere argia ez den garaiotan guztiak marinela dira, egunero ogia irabazi beharra zer den ondo dakitenak, eta bederatzi hilabetez etxebizitza bihurtzen duten 35 metroko ontzian elkarrekin bizi dira hamalauak. Guztiak, gainera, futbolzale porrokatuak dira eta etxekoez inguratuta lan egiten dute. Bost oriotarrak, Solaberrietatarrak senideak dira; osaba-ilobak, hain zuzen ere, tradizio luzeko arrantzale familiako azken bi belaunaldietako ordezkariak. Bederatzi senegaldarrak ere senideak dira euren artean (lehengusuak, osabak eta ilobak), eta horiek ere arrantza zer den txikitatik ikasi zuten jaioterrian.

Hitzordura, Jacobaz gain, Moussa, Issa, Faly, Souly eta Ibrahim azaldu dira; Orion bizi dira. Beste hiru Hondarribian bizi dira eta bederatzigarrena Bermeon. Aste guztia berdel harrapatzen eman dute, eta euskal marinelen usadio zaharrari jarraituz, goizean banatu dute partila, aste osoko harrapaketen lansaria. Antzematen zaie gustura daudela, azal beltzaren dirdira areagotzen dieten irribarre zuriak agerian uzten duenez.

ZAILDUTAKO ARRANTZALEAK. Moussak hartu du hitza. «Ni izan nintzen Oriora etortzen lehenengoa, duela zazpi urte. Senegalen arrantzatik bizi ginen, Dakarren; baina lana gogor egin eta diru gutxi irabazten genuenez, Europara etortzea erabaki nuen. Aurrena, Almerian egon nintzen lanean eta gero Lleidan. Handik heldu nintzen Euskal Herrira, arrantzaleak behar zirela jakin nuenean». Orion lanean hasi eta berehala jakinarazi zien Moussak senideei zaildutako arrantzaleen premia zegoela Euskal Herrian. «Gure ogibidea Senegalen arrantza da. Europako ontzi mordoa dago han, batez ere Dakarren, atun eta ganba harrapaketan jarduten dutenak. Arrantza tradizio handia duen herrialdea da gurea».

Moussaren esana ez zitzaion oharkabea pasa haren senideei eta pixkanaka, Afrika utzi eta Europako bidea hartu zuten. Urtebetera Suley etorri zen, eta duela lau urte gainerako zazpiak. «Orion bederatzi hilabete egiten ditugu lanean eta beste hirurak Senegalen. Irabazten ditugun sosak gure familiei bidaltzen dizkiegu, eta harekin nahiko ondo bizi dira. Han lan egiten duten familiak baino hobeto, Senegalen baino hobeto ordaintzen baita arrantza hemen», dio Suleyk.

Hemengo arrantzara azkar egokitu ziren. «Arrantza berez da ofizio gogorra munduko edozein bazterretan. Ezberdintasun bakarra itsasoa bera da. Kantauri itsasoa oso bizia da, zakarra, Afrikan baino indar handiagoa dute olatuek, eta haizeak gogorrago jotzen du. Senegaleko urak lasaiagoak dira, eta, klima ere epelagoa denez, ofizioa samurragoa da han», azaldu du Falyk. Etxekoekin inolako arazorik ez dutela gaineratzen du eta hartu eman ona dutela. «Lana lana da, eta kito» dio Moussak jatorri afrikarra ezin ezkutatzeko espainieraz.

Agian, *Zeruko Amako* xelebrekeria handiena paisaia linguistikoa da; hizkuntzaren kontua, alegia. Afrikarrek euren artean (sheeri) izeneko hizkuntza hitz egiten dute, Senegalen hitz egiten diren hamabost hizkuntza ingurutan hedatuena. Solaberrietatarak, aldiz, herriko euskalkian aritzen dira, (ogiya, itsaso berdia, earra zitxion) eta halakoak esanez. Komunikazio arazoa konpontzeko, espainierara jotzen dute guztiek, ontzian inork menderatzen ez duen hizkuntzara. «Euskaraz zerbait ikasi dugu. Batez ere, elikagaien izenak, eta arrantza egiten ez ditugunean entzuten ditugun (biraoak)» dio Falyk.

Tradizionalki kristautasunarekin eta katolikotasunarekin lotura estua mantendu duen mundua izan da arrantza Euskal Herrian -ikusi besterik ez dago ontzi gehienen izena-. Bada, erlijioa da *Zeruko Amako* lankideak bereizten dituen beste ezaugarrietako bat. Moussaren hitzetan, «gu musulmanak gara eta gure erlijioak egunean bost aldiz otoitz egiteko agintzen digu. Koranak dio, ordea, otoitz egiteko ezinbestekoa dela txukun egotea, eta, lanean gaudenean zikinduta eta narrastuta egoten garenez, ezin izaten dugu beti erreztatu». Ontzian otoitz egitean beste arazo bat ere badute. «Meka hirira begira egin behar da otoitz, eta, itsasoan orientazioa galtzea erraza denez, askotan patroiarri galdetzen diogu, ipar orratzari erreparatu, eta ekialdea non dagoen esateko» aitortu du Moussak.

BIZIMODU LASAIA. Lehorrean daudenean Oriotik gutxitan ateratzen dira. «Bizimodu oso lasaia daramagu eta gutxi ateratzen gara etxetik. Bizimodua oso garestia dago European eta egun guztia kalean emango bagenu, hara eta hona, Euskal Herrira lanera etortzea ez litzateke errentagarria guretzat», argitzen du Issak.

Tarteka, ordea, biltzen dira Ondarroan edo Getarian lanean dabiltzan afrikarrekin. «Senegaldar guztiak anaiak gara, nahiz eta odolez hala izan ez. Beharbada europarrekin daukagun ezberdintasunik handiena horixe da, elkar hobeto ulertzen dugula. Geure artean anaitasun handia dago, eta egokitzen garen lekuan egokitzen garela, segituan biltzen gara berriketarako».

Elkarriketaren une batean futbol hitza entzun da ontziko jangelan, solasean ari direnen zaletasun ezkutaezina. *Zeruko Aman* guztiak dira futbolzale porrokatuak. Solaberrietatarak ezagunak dira herriko futbol giroan. Zaharrenak arituak dira, eta Jagoba eta Asier Orioko Futbol taldean dabiltza. Aste honetan ez dira konbokatutako izan erregional mailako partida jokatzeko. Ika-mika eta adarjotzea marinelen gustuko taldeez hitz egitean hasi da. Falyrena nabarmena da, Real Madrileko kamiseta soinean azaldu baita elkarriketara. Issa eta Hassanek lotsa pixka batez deklaritzen dute beraien merengismo-a, Suley Valentziaren aldekoa da eta Moussaren hautuak guztien irribarrea eragin du. Errealekoa dela dio. «Izorratu haiz orduan», bota dio argazkilariak

Bukatu aurretik Moussak zerbait gaineratu nahi izan du. «Euskal Herrian oso gustura gaude, eta ezin dezakegu hitz txar bat esan hemengo jendeari buruz. Etxeko-ekin ondo konpontzen gara. Falyk oraintxe izan duen semea (Jagoba) izena jarri dio». Herrian ondo hartuak izan direla dio, eta arrantzale zahar asko etortzen zaiela kontu galdezka. «Ni Lleidan eta

Andaluzian bizi izandakoa naiz, eta lasai esan dezaket bi toki horietan behintzat, hemen baino arrazakeria handiagoa ezagutu dudala, nabarmen. Orain, hemen jendeak badiu aurreiritziak. Badirudi, jatorrak edo arduratsuak garela demostratzeko aukera bat behar dugula. Esate baterako, etxe bat alokatzera joan eta inork ez gaitu nahi. Gero, ezagutzen gaituztenean eta beste edozein bezalakoak garela ikustean orduan jendeak jatorrak garela dio». Horixe da Moussaren «kexa» bakarra.

Jagobaren purrusta beste alde batetik etorri da. «Jende leiala eta hitzekoa da; orain, buruan zerbait sartuz gero, akabo. Astoa baino egoskorragoak dira. Esaterako, atzo siesta egin behar zutela buruan sartu zitzaien eta argazkilaria, kazetaria eta neronekin aurretik jarritako hitzordura ez ziren azaldu».

Arrantzalea, gaztea eta bertakoa; galtzen ari den espeziea

I. GAZTAÑAZPI

Orio

Jagoba Solaberrieta da *Zeruko-Ama* daraman familiako kiderik gazteena. 25 urte izanagatik, ordea, Orioko baxurako flota 28 baporek osatzen zuten garaia ezagutu du; herriko arrantzaleek xanpainarekin txikiteatzen zutenekoa. Gaur, zortzi ontzi baino ez dira geratzen herrian. Aita patroia du, osaba bat makinista, eta beste osaba eta anaia Asier marinel soil eta sukaldari; bera bezala. Urte luzez *Reina de los Angeles* ontziaren jabe izan zen familia, baina 90eko hamarkadaren erdialdean, baporea hura desagitera bidali eta *Zeruko Ama* erosi zuten, handiagoa zelako eta arrantzarako hobeto egokitua zegoelako. Harrezkero, ordea, Euskal Herrian arrantzaren egoerak okerrera egin du, eta herrian marinelek lehorreko langileek baino diru gehiago zerabilten garaia amaitu da.

Zeruko Amak aurtengoa izango du azkeneko arrantza kanpaina. Udan azkeneko aldiz itsasoratu eta udazkenean ontzia desegingo dute. «Bapore berria egitea oso garestia da, antzinako 600-800 milioi pezeta behar dira, eta horri etekina ateratzeko arrantza asko egin behar da. Erreparatu gaurko panoramari, zein den berdelaren prezioa eta antxoarekin zer ari den gertatzen. Errealitatea hori da, eta bankuak ez du barkatzen. Letra hilero-hilero heltzen da, eta arraina batzuetan bai eta besteetan ez», dio Jagobak. Ontzia desegin ondoren zer egin behar duen galdetuta lasai ageri da. «Zerbait izango da gero ere» erantzuten du. Berez gogorra den ogibideari etorkizun ilunaren zalantza eranstea, itsasorako grinari eusten zailtasunak dituen beste gazte bat baino ez da Jagoba.

«Nola ikusten duk arrantzaren etorkizuna, Jagoba?». Albora begiratu, lankideei erreparatu eta serio erantzun du: «Uff, beltza».

«Bankuaren letra hilero-hilero heltzen da eta arraina batzutan bai eta bestetan ez»

Jagoba solaberrieta

'Zeruko amako' arrantzalea

II. ÉPREUVE D'ENTRETIEN A PARTIR D'UN DOSSIER

DOSSIER1

Euskarako Capesa 2018

Ahozko azterketa

Epreuve entretien à partir d'un dossier

PREMIERE PARTIE : compréhension de l'oral

Mp3 dokumentuaren aurkezpena eta azterketa proposatuko dituzu euskaraz.

Kantua, 7 Eskale taldea, 3.37 mn, « Kaixo amatxo », 1995

<https://www.youtube.com/watch?v=YbvmQko083o>

DEUXIEME PARTIE : analyse de productions d'élèves

Le dossier

1. Présentez la classe cible, les spécificités de l'établissement en lien avec l'enseignement du basque, les objectifs de la séquence, les entraînements et évaluation proposés.

Production des élèves :

2. Analysez les acquis (culturels, linguistiques, pragmatiques) en fonction de la séquence et des consignes d'évaluation;
3. Analysez les erreurs linguistiques (donner leur typologie et les hiérarchies) en fonction des objectifs de la séquence et du niveau de classe;
4. Proposez des remédiations (individuelles et collectives), en fonction du niveau du CECRL, et un/des prolongement(s) pour asseoir et enrichir les apprentissages.

I) PRODUCTIONS D'ELEVES : 4° bilingues



Usoa hegazti etorritako neskatoa, P. Zubizarreta



Kukua, Afrikatik etortzen den hegazti migratzaile baten izena da. Kaini, Afrikatik etorri zen neskatoa marigori baten izena da. Kukua bezala, Kaini hegaldako etorri zen. Afrikatik hegazkin batean igorri zuten. Horregatik haren izenak Usoa ditzatez dute, hegalko etorritako neskatoa. Eta nortengo udaberrian ere kukua Afrikatik etorri da: ku-ku, ku-ku! Dirua sakelari, haur guztiak lortuak dabilte. Baina ondorengoak erretzen du eta kukua hegazti alferria eta oportunitate dela. Usoa triste eta kezkatua da.

Usoa esaten dizute, hegazti etorritako neskatoa. Eta beharbada horregatik, orain bezala, zerura begiratzea atsegin duzu, handik etorri zinelako, handik ekarri zintuztelako. Baina orain kezkatuta zaudete eta sabelean hamalaka mila inurri¹ dabilkizula dirudi. Eta zeruak zure begirada tristea ikusi du.

—Kukuak ku-ku, eta dirua sakelari, aberatsa urte guztian— esan dizue arratsaldean andereñoak.

Baina zu kukua entzun gabe ere, aberatsa zera urte guztian. Horretaz ere ziur² zaudete. Ziur baino ziurrago.

Zeren zuek, Usoa, ez baitaukazu ama bakar bat. Zuek bi ama daukazu: hangoa eta hemengo. Eta zure hango ama ez da bihurria, alproja³ eta aprobetxategia⁴. Ez horixe!

Zure bigarren amari hemengo ama esaten diozu. Eta maite duzu, eta ez da lpu-netako amaorde horiek bezalakoa, galztoa eta bihozgabekoa. Baina zure lehenengo ama ere, hangoa, oso ona da eta oso maite duzu. Eta ez da kukua bezalakoa. Edo beharbada bai. Baina bere arrazolak izango zituen egin zuena egiteko.

Zure hango amak Afrikatik hona bidali zintuen han gose handia zelako, eta gerra, eta biek, goseak eta balek⁵, jende asko hiri zutelako. Seguruenik zure hango ama eta hango familia ere bai. Beharbada horregatik ere hain atsegin duzu zerura begiratzea, hangoak oso gogoan dituzulako, hangoak nortzuk eta nolakoak ziren oso ongi gogoratzen ez duzulako. Hain zinen txikiak!

Usoa esaten dizute hegazti etorri zinelako. Eta zure hango amaren gutun bat daukazu. Eta horrek bai sentiarazten zaituela aberats. Zure hemengo etxera ekarri zintuztenean, gutun hori zen zure ekipaje⁶ guztia, zure ekipaje bakarra. Eta gutuna irakurtzea, zerura begiratzea bezain atsegin duzu.

- * Usoa = udura
- * inurri = Anasura
- * alproja = alferria
- * aprobetxategia = oportunitate

- * ziur = segur
- * balek = leu bilerak (le furib)
- * ekipaje = equipage, bagages

I) PRODUCTIONS D'ELEVES : 4° bilingues

IDATZIAREN ULERMENA

USOA HEGAN ETORRITAKO NESKATOA

Consigne donnée aux élèves :

Testua irakur ezazu eta galderei erantzun esaldi osoak eginez.

- a) Zein dira kukuaren berezitasunak ?
- b) Zer behar da sakelan kukua entzuten denean? Zertarako?
- c) Non sortua da Usoa?
- d) Zein da Usoaren egiazko izena? Zergatik Usoa deitzen dute?
- e) Usoak bi ama ditu : “hangoa” eta “hemengoa”. Nongoak dira ?
- f) Zer egin du bere hango amak ? Zergatik ?
- g) Zer gelditzen zaio Usoari bere lehen familiaz?
- h) Zergatik Usoak hain atsegin (maite) du zerura begiratzea?

Copie 1 :

- b) Kukua entzuten denean behar da dirua sakelan. Zeren eta burua erraiten du “ku-ku...eta dirua sakelan eta haur guztiak loriatuak dira.
- c) Uso sortua da Afrikan.
- d) Usoaren egiazko izena da Kasai. Usoa deitzen dute zeren eta hegalka etorrikoa neskatoa da.
- e) Usoak bi ama ditu “hangoa” Afrikan da eta ere bigarren ama “hemengoa” Frantzian usoa-rekin.
- f) “Hango” amak eramaiten du usoa Frantzian zeren eta Afrikan gerla bazen eta ainitz hil baziren. Ez du nahi ber haurra bala bat hartzea.
- g) Gelditzen zaio usoari ber lehen familiaz da hago amaren gutun bat daukazu.
- h) Usoak maite du zerura begiratzea zeren eta bada kukua eta ere zeren eta ez badaki bere lehengo familia zeruan direra.
- a) Kukua, Afrikatik etortzen da. Andereñoak erran du kukua hegazti alferra eta oportunista dela.

Copie 2:

- b) Sakelan dirua behar dugu. Urte guziak aberatsa izaiteko.
- c) Usoa Afrikan sortua da.
- d) Usoako egiazko izena Kasai da. Usoa deitzen dute zeren eta egazkinez etor zen egaldaka etorri zen.
- e) Hango amak Afrikatik da eta hemengoa Frantzitik da.
- f) Bere hango amak Kasai gidatu zuen Frantziarat. Afrikan gerla zelako, gose handi eta bazekiela jende ainitz hiltzen zirelako.
- g) Usoari gutun bat gelditzen zaio.
- h) Usoak biziki maite du zerura begiratzea zeren eta hortik jin zen Frantziarat bere familia beharba zeruan dira, bere familian pentsatzen du eta triste delako.
- a) Kukuaren berezitasunak dira, hegaldaka jin zen, kukua Afrikatik etortze da hegazti migratzaile baten izena du, ikusten dugu usoarekin amankomuneak dituzte. Usoak ere hegaldaka jin zen, migratzaile bat da. Baina diferentzia bat dute : kukua gaixtoa da txarra da eta usoak maitagarria da.

II) DOCUMENTS COMPLEMENTAIRES

A) Situation d'enseignement

1) Contexte

Classe de quatrième bilingue, Labourd intérieur, séquence sur l'émigration et l'exil

2) Descriptif de la séquence pédagogique (objectifs et activités en classe)

Compréhension de l'écrit (lexique, compréhension globale, compréhension fine d'un passage du texte)

Production de l'écrit (Écrire des phrases entières au présent et au passé)

Compréhension / Production de l'oral (Ecouter et comprendre, raconter et donner un avis)

B) Supports exploités dans la séquence :

Document 1: Ze urrun dagoen Kamerun. Zarama taldea (1985)

<https://www.youtube.com/watch?v=juJXPwCDfKs>

Martzianoak bezala

Tabernaz taberna:

kalean galdurik ibiltzen.

"vendo barato"

Hogeitamalau gradu

goizean 'ta gauez:

eta izerditan blai.

"mucho barato"

Nerbioi ertzetatik

askotan baraurik:

Santurtzitik Bilbora

"todo barato"

non ibiltzen ziren

izenik ez dute, soilik Iñaki:

lehengo sardinerak,

Iñaki, zer urrun dagoen Kamerun

inork ez dakien nondik

irten den arrantzaz.

Document 2: Eibartarrak Errusiako exilioan: 1937-1957

1936-37ko gerrak Euskal Herrian eragin zituen milaka iheslari eta errefuxiatu haien artean izan zen kategoria berezi bat, konpromezu politikoarekin zerikusirik ez zuen jende multzo handi batena: haurrak. Gerrak Euskal Herrian iraun zuen bitartean, batez ere 1937ko maiatzean eta ekainean Bilbotik, milaka haur erbesteratu ziren.

Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako gerrako haurren elkarteak 30.000 ume ebakuatu zituztela kalkulatu du. 4.000 Ingalaterrara, 3.000 Belgikara eta Frantziara 10.000 baino gehiago. Danimarkara ere joan ziren batzuk. Garai hartako Eusko Jaurlaritzaren artxibategi ofizialetako datuak askoz txikiagoak dira: 15.000 ume, honela banaturik: Frantzia (5.305), Erresuma Batua (3.282), Belgika (3.128) eta Sobiet Batasuna (1.489), besteak beste.

Betirako markatuak geratu dira haur haiek, eta gaur egunean ere, aiton-amonak direnean ere, gerrako umeak dira: hala esaten diete beren buruari. EGUNKARIAk haur haietako batzuekin hitz egin du lan honetarako: Ernesto Grijalba (donostiarra, 14 urte ihes egin zuenean, Ingalaterrara joana); Fernando Berradre (donostiarra, 9 urte, Belgikara); Jose Okamika (eibartarra, 10 urte, Ukrainara), eta Alberto Lizarralde (eibartarra, 11 urte, Errusiara). Bidaia desberdinetan, baina lauak untzi berean, Habana-n, atera zituzten Santurtitzirik 1937ko maiatzean eta ekainean.

(...)

Sobiet Batasunera joan zirenek besteek baino esperientzia latzagoa bizi izan zuten. Hogei urte iraun zuen ume haien erbesteratzeak. Alberto Lizarralde eta Jose Okamika 10 eta 11 urte zeuzkatela ebakuatu zituzten Sobiet Batasunera. Bien familiak babestuta zeuden Bilbon, eibartar asko bezala, industria Deustura trasladatu zelako Eibartik. 1937ko ekainaren 13an irten ziren biak etxetik eta igo ziren Habana untzira. 4.000 ume joan ziren bidaia horretan, erdiak Frantziarako, beste erdiak Errusiaraino, Sontay untzian azken bidaia hura.

"Bakoitzak nahi zuen tokira eman zezakeen izena, baina Ingalaterra eta Frantzia lehenago bete ziren, eta Errusia geratzen zen", dio Lizarralde. "Gerra amaitu arte joango ginelako ideiarekin irten genuen arratsalde hartan etxetik", berriz Okamikak. Baina 20 urte egin zituen mutil hark kanpoan, eta ez zituen bere gurasoak berriro bizirik ikusi. Lizarralde ama besarkatu zuen berriro, baina aita hila zuen bueltatu zenerako.

2.100 lagun joan ziren untzi hartan Sobiet Batasunera, gehienak euskal herritarrak. Lizarralde eta Okamikak Eibarkoen kontua ondo daramate: 57 joan ziren. Bost eta 14 urte bitarteko neska mutilak. "Bidaia gogorra izan zen, baina eskurtsio bat bezala ere bai. Gure gurasoek jakin izan balute 20 urterako gindoazela, ez ziguten inori utziko", dio Lizarralde.

Pasarte hauek "Espainiako Gerra Zibila Euskal Herrian" liburutik aterata daude.

Egileak: Luis Fernandez eta Josu Chueca.

Argitaratzailea: Euskaldunon Egunkaria, 1997

DOSSIER2

CAPES-CAFEP DE BASQUE

Session 2018

ENTRETIEN A PARTIR D'UN DOSSIER

Notion : Langages

PREMIERE PARTIE : compréhension de l'oral

Mp3 dokumentua euskaraz aurkeztuko duzu eta aztertuko.

Euskal irratia, Airesta emankizuna

3minutu 6 segundu

2011ko martxoaren 17a

DEUXIEME PARTIE : analyse de productions d'élèves

Le dossier :

1. Présentez la classe cible, les spécificités de l'établissement en lien avec l'enseignement du basque, les objectifs de la séquence, les entraînements et évaluations proposés.

Productions des élèves :

2. Analysez les acquis (culturels, linguistiques, pragmatiques) en fonction de la séquence et des consignes de l'évaluation.
3. Analysez les erreurs linguistiques (donner leur typologie et les hiérarchiser) en fonction des objectifs de la séquence et du niveau de classe.
4. Proposez des remédiations (individuelles et collectives), en fonction du niveau du CECRL, et un/des prolongement(s) pour asseoir et enrichir les apprentissages.

D) PRODUCTIONS D'ELEVES : 5^{èmes} bilingues

Consigne donnée aux élèves

Après avoir lu le texte *Zanpantzar-en auzia*, par groupe, vous rédigerez une saynète sur le même thème que vous représenterez ensuite devant la classe.

Production écrite réalisée par un groupe d'élèves:

Auzia

Herria : Mendionde

Paskalin

Xaxi

Zanpantzar

Paskalin: Egun on deneri! Gaur Mendionde herrian hor zarete Zanpantzar auzian emaitoko.

Xaxi: Zanpantzar asteman dugu ardi talde erdian! Bildotx batekin jostatzen hari zen.

Zanpantzar : Gezur bat da ? Bildotxa egun orte sortu zen eta beraz okupatu behar nintzen.

Paskalin : Berantegi da ikusi zaitugu.

Xaxi : Bai eta ere apeza ez du egin eliza igande eta larrun bat untan.

Zanpantzar : Ez dut espres egin pala jostatzen ~~ginerarik~~ ginerarik eta nahi gabe kolpe bat eman diot nere palantxarekin.

Paskalin : Bai, bai eta ere ez dugu espres egin xua emaita herriko-etxean ?

Zanpantzar : Ez da nik ! da Norbait nik ez du maitatzea.

Xaxi : xalatuko zait xalatuko zaitugu egin duzuna ez da ongi !

Paskalin : herriko-etxean xua eman dugu beraz guk xuluko za zaitugu

Zanpantzar : EZ ! EZ ! EZ !

II) DOCUMENTS COMPLEMENTAIRES

A) Situation d'enseignement

1) Contexte

Il s'agit d'une classe bilingue de 5^{ème} (21 élèves) du collège Sainte-Marie, à Saint-Jean-de-Luz. Le collège compte 450 élèves dont la moitié approximativement est en filière bilingue. Dans cette classe, les élèves suivent les cours de Mathématiques, Histoire-Géographie, EPS, Arts Plastiques et Physique-chimie en langue basque, heures qui s'ajoutent aux trois heures de langue et culture basque. La séquence sur le carnaval (*Ihauteriak*) a été étudiée en février et mars 2018.

2) Descriptif de la séquence pédagogique (objectifs et activités en classe)

Thème de la séquence : le carnaval traditionnel basque.

Objectifs de la séquence :

- **Culturel** : connaître une tradition populaire de la culture basque.
- **Pragmatique** : écrire un texte bien structuré, en respectant les règles de ponctuation et en utilisant les connecteurs nécessaires.
- **Phonologique** : lecture active devant la classe du texte *Zanpantzar-en auzia* (le procès de Saint Ventru-Pansu) en prononçant correctement et en donnant l'intonation appropriée.
- **Lexical** : connaître le vocabulaire propre aux divers personnages et costumes du carnaval traditionnel basque
- **Grammatical** : réviser l'utilisation des semi-auxiliaires modaux *nahi*, *behar*, *ahal*

Déroulement de la séquence :

Séance 1 : présentation du thème + compréhension écrite. Lecture du texte *Ihauteriak* devant la classe. En binôme, rédaction de six questions à propos du texte, puis ces jeux de questions vont ensuite être proposés au reste de la classe (interaction orale). Correction collective.

Séance 2 : visionnage d'une vidéo sur le carnaval d'Altsasua (petit village navarrais). Description des personnages qui apparaissent dans la vidéo et à l'oral, réalisation d'un bref résumé. Ensuite, lecture du texte *Momotxorroak* (petits masques) en classe. Travail à la maison : répondre aux questions correspondant au texte et formulées en classe.

Séance 3 : correction par les élèves du travail réalisé chez soi, puis écoute à deux reprises d'un enregistrement sur le carnaval d'Altsasua et réponse aux questions soulevées en classe.

Séance 4 : lecture active à haute voix du texte *Zanpantzar-en auzia* pour vérifier la compréhension orale. Puis, répartition de la classe par groupe de 4 ou 5, et rédaction d'un texte en utilisant les semi-auxiliaires modaux *nahi*, *behar*, *ahal*, étudiés lors de la séquence précédente.

Séance 5 : saynètes des textes réalisés par les groupes d'élèves.

B) Supports exploités dans la séquence

Document 1 : Texte *Ihauteriak*, *Irakurgaiak 2*, IKAS (adapté)

Agindua: Hurrengo testua denon artean, ozenki, irakurriko dugu. Gero, binaka, prestatuko dituzue sei galdera dagozkien erantzunekin, ikaskideei egiteko.

Giristinoen egutegian Garizuma garrantzi handikoa da. Lehen, Garizuma gogorra zen, penitentzia eta barau anitz egin behar baitzen. Horregatik Garizuman sartu baino lehenago festa handi bat egiten zen: Ihauteriak.

Ihauterietan herriak moztaroz betetzen dira. Moztar hitzak izen desberdinak hartzen ahal ditu lekuaren arabera: atxo (Leitza), maskak (Luzaide), kokoxak (Markina).....

Gizarte arauak egun baino zorrotzagoak ziren garaian Ihauteriek garrantzi handia zuten, aldi honetan dena posible baitzen: pobrea zena aberats bilakatu, gizonak emazte, etab. Halaber, herri anitzetan pertsonai desberdinak baziren: Zantzar, Markitos, Miel Otxin, Gutierrez.....

Iraultza hau ez zen agintarien gustokoa, bistan denez. Horregatik behin eta berriz debekatzeko entseuak egiten zituzten. Horrela, XVIII mendean zigorrak baziren. Hala ere ihauteriek iraun zuten herriak horrela nahi zuelako, eta horrela iraunduko du ere, herriak nahi duen bitartean.

Irakurgaiak 3, IKAS (egokitua)

Document 2 : texte *Momotxorroak*, matériel pédagogique AEK (adapté)

Altsasuko ihauterietan momotxorroak dira pertsonaia nagusiak.

Zoragarria da eskaintzen diguten ikuskizuna baina bere itxurak beldurra sortzen digu. Oso arrunta da haiek pasatzean haurrak negarrez ikustea.

Burua otarre batekin estaltzen dute. Aurrealdean ipurukoa ematen dute eta aldeetan adar pare bat. Ipurukoa gaizki ematen badute aurpegia ikusiko diegu. Horregatik kasu egiten dute eta apaingarri bat ezartzen dute.

Gibelaldean, berriz, ardi-larru bat ezartzen dute, bizkarrean bezala. Aurrealdean, odolez zikindutako mihise bat janzten dute. Moztar osatzeko prakak eta artilezko galtzerdiak janzten dituzte.

Esku batean makila handi bat eramaten dute publiko beldurtzeko.

Bukatzeko, hainbeste harrabots egiten duten faleak aipatu behar ditugu. Momotxorro bakoitzak joare pare bat lotzen du gerrian gerriko batekin.

Desfilea egiten dutelarik, noiztenka gelditzen dira, zezen adarra atera, ahora eraman eta harrabots handia egiten dute.

Momotxorren giblean sorginak joaten dira. Aurpegiak arrautzez igurzten dituzte, lehortzen direlarik zimurak imitatzen dituztelako eta beltzez janzen dira. Eskuan erratz bat eramaten dute.

Azkenik maskaririk aipatu behar ditugu. Burua tipula bat bezala eramaten dute eta jantziak kolore askotakoak.

AEKko materiala (egokitua)

Document 3 : texte « Zantzar-en auzia ». *Irakurgaiak 2*, IKAS.

Zanpantzar-en auzia

Mattin : Arratsalde on deneri! Hemen gira bilduak, Kanboko herrian, Zanpantzar auzitan emaiteko.

Koxe : Bai, azkenean harrapatu zaitugu. Badakizue non gordea zen? Kanboko txokolategian! Doaiko txokolatez asetzeko. Urde debrua, itsusia, zikina, zakarra!

Mañaña : Ez da egia! Jakin behar duzue ez duela etxerik pertsona gaixo horrek. Etxe Segurrik Gabekoa da, ESG da!

Mattin : Zer erran nahi du ESG horrek?

Mañaña : Etxe Segurrik Gabe, SDF frantsesez.

Mattin : Berdin du! Halere ohoia haundia da. Nik Zanpantzar ikusi dut ene ardien ebasten eta Ezpeletako merkatuan saltzen. Ohoina da!

Mañaña : Baina gaixoak nolazpait bizi behar du: ez du etxerik, ez eta dirurik; gainera langabezian dago. Zer egiten ahal du?

Koxe : Ebaslea da! Zigortu behar dugu!

Mattin : Ez bakarrik zigortu baina xihortu!

Mañaña : Jendearen xihortzeko arrazoina ote da, ardi lukainka bat bezala?

Mattin : Bai, zeren eta xorimarlo horrengatik dena makur baitoa gure herrian. Badakit ahalak egiten dituela aroa itzulipurdika iragan dadin. Ez dugu sekula elurrik Kanbon ikusten; beti Paristarrek dute ukaiten. Beti eguzkia igortzen digu eta orain aspertuak gira! Eta euria, noiztik ez dugu ikusi bazter haue-tan? Baratzeak idortuak ditugu. Oi, itsusi horrek nahiago ditu beti Mediterraneo alderat igorri euri xorta maiteak! Ikusi behar du zer sofritzen dugun beroarengatik, guk berari... su emanez!

SUJETS DES ÉPREUVES ÉCRITES D'ADMISSIBILITÉ

BASQUE

SESSION 2018

CAPES CONCOURS EXTERNE ET CAFEP

SECTION : LANGUES RÉGIONALES

BASQUE

COMPOSITION ET TRADUCTION

Durée : 5 heures

L'usage de tout ouvrage de référence, de tout dictionnaire et de tout matériel électronique (y compris la calculatrice) est rigoureusement interdit.

Dans le cas où un(e) candidat(e) repère ce qui lui semble être une erreur d'énoncé, il (elle) le signale très lisiblement sur sa copie, propose la correction et poursuit l'épreuve en conséquence.

De même, si cela conduit à formuler une ou plusieurs hypothèses, il est demandé de la (ou les) mentionner explicitement.

NB : La copie que vous rendrez ne devra, conformément au principe d'anonymat, comporter aucun signe distinctif, tel que nom, signature, origine, etc. Si le travail qui vous est demandé comporte notamment la rédaction d'un projet ou d'une note, vous devrez impérativement vous abstenir de signer ou de l'identifier.

Tournez la page S.V.P.

OPTION ESPAGNOL



MINISTÈRE
DE L'ÉDUCATION
NATIONALE

EBE ESP 1

SESSION 2018

CAPES CONCOURS EXTERNE ET CAFEP

SECTION : LANGUES VIVANTES ÉTRANGÈRES

ESPAGNOL

SECTION : LANGUES RÉGIONALES

BASQUE, CATALAN, CRÉOLE, OCCITAN-LANGUE-OC

COMPOSITION EN ESPAGNOL

Durée : 5 heures

L'usage de tout ouvrage de référence, de tout dictionnaire et de tout matériel électronique (y compris la calculatrice) est rigoureusement interdit.

Dans le cas où un(e) candidat(e) repère ce qui lui semble être une erreur d'énoncé, il (elle) le signale très lisiblement sur sa copie, propose la correction et poursuit l'épreuve en conséquence.

De même, si cela vous conduit à formuler une ou plusieurs hypothèses, il vous est demandé de la (ou les) mentionner explicitement.

NB : La copie que vous rendrez ne devra, conformément au principe d'anonymat, comporter aucun signe distinctif, tel que nom, signature, origine, etc. Si le travail qui vous est demandé comporte notamment la rédaction d'un projet ou d'une note, vous devrez impérativement vous abstenir de signer ou de l'identifier.

Tournez la page S.V.P.

A

HISTOIRE & GÉOGRAPHIE



MINISTÈRE
DE L'ÉDUCATION
NATIONALE

EBE HGO 1

SESSION 2018

CAPES CONCOURS EXTERNE ET CAFEP

Section : HISTOIRE ET GÉOGRAPHIE
Section : LANGUES RÉGIONALES

COMPOSITION

Durée : 5 heures

L'usage de tout ouvrage de référence, de tout dictionnaire et de tout matériel électronique (y compris la calculatrice) est rigoureusement interdit.

Dans le cas où un(e) candidat(e) repère ce qui lui semble être une erreur d'énoncé, il (elle) le signale très lisiblement sur sa copie, propose la correction et poursuit l'épreuve en conséquence.

De même, si cela vous conduit à formuler une ou plusieurs hypothèses, il vous est demandé de la (ou les) mentionner explicitement.

NB : La copie que vous rendrez ne devra, conformément au principe d'anonymat, comporter aucun signe distinctif, tel que nom, signature, origine, etc. Si le travail qui vous est demandé comporte notamment la rédaction d'un projet ou d'une note, vous devrez impérativement vous abstenir de signer ou de l'identifier.

Tournez la page S.V.P.

SESSION 2018

CAPES CONCOURS EXTERNE ET CAFEP

**Section : HISTOIRE ET GÉOGRAPHIE
Section : LANGUES RÉGIONALES**

COMPOSITION

Durée : 5 heures

L'usage de tout ouvrage de référence, de tout dictionnaire et de tout matériel électronique (y compris la calculatrice) est rigoureusement interdit.

Dans le cas où un(e) candidat(e) repère ce qui lui semble être une erreur d'énoncé, il (elle) le signale très lisiblement sur sa copie, propose la correction et poursuit l'épreuve en conséquence.

De même, si cela vous conduit à formuler une ou plusieurs hypothèses, il vous est demandé de la (ou les) mentionner explicitement.

NB : La copie que vous rendrez ne devra, conformément au principe d'anonymat, comporter aucun signe distinctif, tel que nom, signature, origine, etc. Si le travail qui vous est demandé comporte notamment la rédaction d'un projet ou d'une note, vous devrez impérativement vous abstenir de signer ou de l'identifier.

Tournez la page S.V.P.